

**ESKOLA KIROLEKO ETA KIROL FEDERATUKO SASKIBALOI-PARTIDETAN  
JOKABIDE BORTITZAK EKIDITEKO PROTOKOLOA  
2022/2023 DENBORALDIA**

Indarkeriazko jokabideak (mehatxuak, irainak, jokabide xenofoboak, adierazpen arrazistak, etab.) errealitate ukalezina izaten hasi dira saskibaloi-zelaietan. Kezkatuta gaude. Horregatik, jokabide horiek guztiak dira ezabatzea da gure helburu nagusietako bat.

Jokabide horiek desagerrarazteko, Arabako Saskibaloi Federazioak, Saskibaloiko Epaileen Batzordearekin batera, honako Protokolo hau egin du, 2023ko martxoaren 22tik aurrera Arabako Saskibaloi Federazioaren jarduera eta lehiaketa guztietan indarrean egongo dena

**JARDUTEKO PROTOKOLOA**

Hitzezko indarkeria honakoa hau da:

**IRAINAK, MEHATXU LARRIAK ETA ADIERAZPEN ARRAZISTA, XENOFOBO EDO SEXISTAK, ERA JARRAITUAN EGINDAKOAK.**

Arbitroek, edozein partidatan, beran parte-hartzen ari den pertsona baten aurka, hitzezko indarkeria jarraitua detektatzen badute, honela jardun ahal izango dute:

**1. NEURRIA: PARTIDA GELDITZEA**

Arbitroak partida geldituko du eta zelaiaren arduradunari edo ordezkariari jakinaraziko dio hitzezko indarkeria jarraitua gertatzen ari dela. Partida udal-instalazioetan jokatuz gero, bertako taldeari dagokio joko-zelaiaren ardura.

Partidua eten egingo da eta hitzezko indarkeriaz jardun dutenei euren jarrera utz dezatela eskatuko zaie.

**2. NEURRIA: PARTIDA ALDI BATERAKO ETETEA**

Ikusleek ohartarazi ondoren hitzezko indarkeriak jarraitzen badu, edo bertako arduradunak aurreko puntuan ezarritakoa bete ez badu (1. neurria), arbitroak aldi baterako etengo du partida, eta aldageletara joateko agindua emango die taldeei.

Aurreko puntuko neurriak errepikatu beharko dira, eta jendeak hitzezko indarkeriarekin jarraitzen badu, polizia bertaratzea eskatuko da.

**3. NEURRIA: PARTIDA BEHIN BETIKO ETETEA**

Hitzezko indarkeriaren erantzuleak ezin badira kanporatu edo ikusle gehiagok antzeko ekintzak errepikatzen badituzte, arbitroak partida behin betiko etetea erabakiko du.

Neurri horiek guztiak Arabako Saskibaloi Federazioko Lehiaketa Batzordeari jakinarazi beharko zaizkio, beharrezko erabakiak har ditzan.

Sin.:

Arabako Saskibaloi Federazioa

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 22a